

## Santa Kruz, gizona

*Deia*, 1983-07-28.

Atzo, Santa Kruz Apaizaren biografi laburra erakutsi nuen, gero beste ikuspegi batzu emateko asmotan.

Bai baitu pertsonaia honek deigarririk gure herrian.

Liberalak egin zuten Santa Kruz apaiza mailaz jaisteko ahalegin politikorik, eta Orixek bere liburu ederrean<sup>1</sup> dionez, joriek asmatu zuten "errekan jayo zela"; ez dakit honek sasiko zenaren lotza adierazi nahi duen, hala *ondamendian* esan nahi duen (Pierre Lhanderen XIII garren adieran: *Erreka*) nolana, ez du egia esan behar, jakina baita "Samoa" deritzan baserrian jayo zela. Aita laster hil zaiola egia da, jayo zen urte berean, baina ama bizi izan zen apaizak 29 urte bete zituen; latin, 18 urterekin hasi zen ikasten, eta Tolosan bere lehengusu apaiza Sasiainekin.

Gazteizko apezgaitegian bihurri xamarra omen zen, baina ikaskorra, bi urte Teologia besterik ez zuen egin, baina gaisotu egin zelako izan zen hau. Ahotik odola bota zuen; indartzera etxera bidali zuten. Apaiz egin, 1866an, eta bi urte egon zen ihardun gabe.

Gero bidali zuen gotzaiak Ernialdera.

Gizona, ekintzetan neurtzen da. Oiartzungo "Portuberrri" baserriko nagusiari makil-gogorra ematen utzi genuen atzo; jakin behar da zergatik, ordea: "Roteta", bere gizonetako batek dionez, 1872garrenean mugaz haruntz joan behar izandu zuenean arma batzu utzi zizkion Santa Kruzek gorde zitzaizkien; baserriarrak ez zuen gerrileroa ondo ezagutzen eta berriz handik itzuliko ez zelakoan, "galdu" egin zituen edo "liberalei entregatu"; egia esan, beste norbaitek hil egingo zuen. Bestalde, egingo zituen kupidagabekeriak ere. *Espioien hilketak* leporatzen dizkiote; honetaz apaizaren "goardia beltzeko" mutil batek, "Txabalo"k, esaten duenak ba du zentsurik: "Espioiak hiltzen genituela?; beharko!; bestela, garbituko ginuztekeen aguro!; espioiak pasatzen zizkieten gu nondik nora gebiltzeneko pausoak; eskarmentuak egin behar ziren, eta egin ziren, *baina inoiz ez proba garbirik izan gabe. Emakumezko bat ere hil zuela* apaizak eta oso gogor salatzen zuen herriak; "Errenteritxiki"k esaten du nola: "Azkoitian harrapatu zuten nazionalen espioi frogak eskuan; ez lehenengoz, hirugarren aldiz baizik; konfesatu zen eta gero Aretxabaletara eramane eta han fusilatu zuten". Santa Kruz apaiza epaitzeko, honen fanatismoa eduki behar da kontuan: Endarlazan hilketak gogorra egin eta hiru egun gero Goizuetan zen (1873garrengo ekainak 7), eta Salbea elizan abestu eta gero Orden Generala izenpetu zuen: *prostituzioan harrapatutako neska Espainiatik kanpora* botea izango zela lehenengo aldian, eta itzultzen bazen, fusilatua.

---

<sup>1</sup> *Santa Kruz apaiza*, Ormaetxea Nikola ("Orixe"), 1929.